

Oharren batzuk poesiaren ontzaldaketaz*

GERARDO MARKULETA

Hasi baino lehen: aitzakiak, erreparoak, aitortzak eta *striptease txiki bat*

Beste ezer baino lehen, eskerrak ematea tokatzen zait: UEU_{ri}, EIZIE_{ri} eta bereziki Iñigo Roqueri, gonbidapenagatik, konfiantzagatik eta insistitzeagatik ikastaro berezi honetan parte har nezan.

Zeren, bai, aitortu beharra daukat hasierako erantzuna ez zela oso baikorra izan: alegia, oso lanpeturik egoteaz gain, “utzixeak nituela ikastaro, hitzaldi eta horrelakoak” esan nion Iñigori. Eta egia da, poema irakurketak eta beste salbuespenen bat salbu, aspaldi utzi nion “lezioak” emateari.

Izan ere, azken urteotan itzulpengintzaren praktikara emana nago, teorizaziorako ez astirik eta ez gogo handirik gabe. Praktikak ematen dit jatekoa, eta satisfazioa, ez praktikaren gaineko gogoetak edo sistematizazioak.

Ez nuen sekula uste hainbestetan aipatuko nuenik Arantza Urretabizkaiaren esaldi bat, bere literatur lanaz gogoeta egiteko eskatzen dioten bakoitzean berritzen duen aitzakia modukoa: “Ni txoria naiz, ez ornitologo” edo, gure kasura ekarrita, gurera *itzulita*, “ni itzultzailea naiz, ez traduktologo”.

Bestetik, aspaldi utzi nuen mundu akademikoa. Hispaniar eta euskal filologiak egin nintuen bere garaian, baina ez itzulpengintzaren gaineko ikasketa formalik. Herdoilduta dauzkat, besteak beste, terminologiak eta teknologiak; eta hori dela eta beldurtuxe nator zuen aurrera, itzulpengintzan lizentziatuok eta bestelako munstroak (mirespenezko adieran, noski).

* “Literatura Unibertsala itzultzen” ikastaroan irakurri zuen egileak hitzaldi hau, 2012ko ekainaren 27an, UEUren Eibarko egoitzan.

Orduan, zergatik esan nuen baietz azkenean, erresistentzia askorik gabe gainera? Ba, UEU eta EIZIE ez direlako niretzat edozein erakunde, Literatura Unibertsalak garrantzi handia izan duelako euskal irakurle eta itzultzaileontzat, eta poesiaren presentziaren garrantziaz hitz egin zidatelako (oraindik ere, bildumako poesi liburu bakarra da gure gaurko hau).

Teknologia, liluragarria, zentzu guztietan. Saio honetarako testuak prestatzen ari nintzen, artisau erako ‘ebaki eta itsatsi’ metodo klasikoarekin, eta hara non ikastaroaren arduradunak ohar batzuk helarazten dizkidan “UEUren azpiegitura informatikoari buruz”. Zertzuk ez ziren han aipatzen: kanoia, *PowerPoint*, Linux, eta batere ulertu ez nituen beste hamaika kontu. Nire kezka baretzeko asmotan edo, orobat jakinarazi zidaten ikastaroa *Twitter*-n bitartez zabaldu behar zutela (nire kabutan galdetu nuen: eta nola sartu behar gaituzte guztiok 140 karakterretan?).

Nire eguneroko lanean, teknologiari dagokionez, ez dut trepeta askorik behar: nahikoa daukat testu-tratamendu programa zahar bat, *on line* hiztegiak eta *mail* zerbitzu bat izatearekin. Bi orduotan ez espero, beraz, nire aldetik behintzat, su-festa teknologikorik. Paperezko hiztegi pare bat ekarri dut (kat/kat eta kat/gazt) eta *on line* hiztegi pare bateko estekak.

Askatasun osoa eman ziguten gure saioa antolatzeko orduan: teorikoa, praktikoa edo bien arteko nahasketa. Sarrera labur bat egingo dugu hona ekarri gaituzten “Literatura Unibertsala” bildumari buruz eta *Zenbait poeta katalan* antologiari buruz; antologian bilduta ageri diren poeta batzuk ere aipatuko ditugu laburki eta, girotzen joateko, haien poema bana irakurri ere bai. Poliki joango gara, bai baitakit poesia izu-eragile handia dela irakurleengan, oro har, eta itzultzaileengan bereziki.

Zenbait poeta katalan. Antologia

Striptease txikiarena oraintxe argituko da.

Zenbait poeta katalan hau liburu berezia da niretzat, gauza askorengatik berezi. Oso sentimendu kontrajarriak sortzen dizkit haren akorduak. Egia da satisfazio pertsonal handiak eman dizkidala; egia da liburu honi esker izan nintzela Bartzelonan, Pau Joan Hernández itzultzailearen etxean, eta hango Hizkuntza Eskolan Maialen Lujanbioren bertsoak taula gainean bat-batean itzultzen; egia, baita ere, gaztetxo poesiazaleek orain ber deskubritu dutenean, gogo biziz aipatu izan didatela liburua, bai itzulpena, bai bilduma, eta bai poema jakinen bat ere. Beti, eta adin batetik aurrera gehiago, asko eskertzen diren gauzak dira.

1995-1997. Izan ditut urte hobeak. Urte haietako esperientziek era honetako poemak idaztera eraman ninduten (*Batak ez du bestea kentzen* liburutik, eta hauxe da biluztuko naizen gehiena):

ORDUAN

Lantzean behin itzala zen
haren begien hondoan;
bagenekien:
ez genuen luzaroan
haren musurik hartuko.

Garaitsu hartan goizalban zen
telebistatik ohera,
etxe hoztuan,
goikoaren dutxa hotsak
abisu eman eta laster.

Ate aurrean “ongi etorri”
barruko aldera begira
jarria zuen,
munduaren besarkada
behar zuen irtetean.

“Parentesi artekoak”,
hala esaten zuen berak,
ezpain artean,
hartaz berba egiteko
adorea pilatzean.

Isil pozez hartua zen
betiko lagunartera
berriz biltzean;
erantzunak urriago,
galdekizun berak etsai.

INFERNEGUAN

Haize hotzak eguzkiak legez
erre diezaizuke azala,
eta mamia maspildu,
eta hauts egin zukua.

Orbelak ustelaren eta biziaren
lezioa marraztuko dizu.
Elur-zeruan irla beltz,
arbola biluztuen eskuak,
ukabil, besamotz.

Aiztoen antzera izotzak
zartatuko dizu larrua.
Beroa aurrerago da,
ez da beste nora joanik.

Poeta katalanen antologia ‘esleitu’ zidatenean, lanari ekin nion ilusio handiz baina indarrez flako. EIZIEko idazkaritzako beteranoenek gogoan izango dute —eta ahaztu badute, hobe—, nolako buruko minak eman nizkien liburu honen kontura, eta nolako lanak eginarazi.

Aholku txiki bat: inoiz antologia bat egin eta itzultzea egokitzen bazaizue, ez da gomendagarri lan biok *work in progress* tankeran egiten saiatzea, alegia, aldi berean jardutea poemak hautatzen eta poemak itzultzen. Askoz komenigarriagoa da hautaketa finko samar bat edukitzea, itzultzeko lan potoloari ekin baino lehen.

Berandu, petralduta eta arrastaka amaitu nuen lana. Egia esan, ez nuen guztiz amaitu. Ez nintzen gauza izan osatzeko hitzaurre formal bat, bilduman normalean itzultzaileak egiten duen

lantxo gehigarri hori. Felipe Juaristik hartu zuen lan hori bere gain, bera ere petraldu samarrik, itxura guztien arabera. Nik ez nuen aukerarik izan, nire erruz seguru asko, liburuak kaleratu aurretik hitzaurrea irakurtzeko. Bost minutuz hitz egin bagenu ez zen hain bitxia gertatuko.

Gezurra dirudi horrela esanda, baina liburuak sekula jaso duen kritikarik latzena hitzaurrea bera da. Bi gauza leporatzen zizkidan Felipek.

Bata, garbi samar, inkomunikazio arazo batengatik. Zenbait poeta kanpoan utzi izana itsusten dit hitzaurrearen azken aldera. “Falta dira, hala gertatzen da antologietan, bat edo beste, gure senak (edo *senyak*) sartuta behar luketela esaten badigu ere (...): Pere Gimferrer, Narcís Comadira, Francesc Parcerissas, Joan Margarit, Salvador Oliva, Joan Brossa...” Nik ere gehituko nituzke beste batzuk zerrenda horretan: Martí i Pol eta Pere Rovira, kasu. Baina kontua erraz argitzen da. Literatura Unibertsala izeneko bilduma baterako izanik, poetak aukeratzeko irizpide ohikoa, logikoa, eta batez ere garbia, iruditu zitzaidan antologiako poetak hilik izatea. Eta Felipek aipatzen dituen poeta horiek guztiak —beste tankera bateko antologia batean bai, ezinbestekoak—, garai hartan, bizi-bizirik zeuden (Brossak gutxi iraun zigun arren).

Juaristiren beste erreparoa orokorragoa zen: “Gerardo Markuletak paraturiko hau antologia da. Horrek esan nahi du antologia egileak bere gustuko edo bere sokako poetak hartu dituela, bere gustuko poemak itzuli dituela, bere irizpide soila duela lagun eta gogaide”. Zurtuta geratu nintzen. Ez nekien sokako poetarik neukanik, ezta sokarik neukanik ere! Oharrak purrustada baten antza badauka ere, Felipek gogoeta ederrerrako bidea ematen digu hitz horiekin. Gaitzespena dirudi, baina loretzat ere har daiteke.

Antologia bat egiteko modu asko dago noski. Mutur batean, nolabait esateko, antologia akademikoa dugu, nagusiki helburu didaktikoa duena (egia esan, antologia guztiek dute asmoa zerbaiten “lagin erakusgarri” izateko, baina neurriak eta neurriak daude). Aparailu kritiko eta bibliografiko handia behar dute, eta erakutsi beharreko gaiaren ikuspegi zabalagoa eta sakonagoa eman behar dute. Beste muturrean, eta hau ere nolabait esanda, sortzaile antologiak ditugu, *egile* batek onduak. Hurbileko adibide bat jartzeko, Joseba Sarrionandiak *Izkiriaturik aurkitu ditudan ene poemak* bilduman eskainitakoa: erabat *aliritzi* egindako hautaketa, handik eta hemendik jasotako testuak itzulita, erakusgai jakin zehatzik ere gabea. Mutur bi horien bitartean, aukera zabala.

Onartuko dut beharbada kontuanago izan behar nuela Iñigo Roquek bere eta Pessoren *Poemak pluralean* antologiaren aurkezpenean adierazitakoa, alegia, gai horretaz gure hizkuntzan lehen aldiz eginiko antologia izanik, halako erantzukizun historiko moduko bat argudiatzen du hautatzeko orduan kontuan izandakoak azaltzerakoan. Egia da irakurleak eskertzen dituela testu ondo hornituak, bibliografia, datak, datuak, oharrak; baina hori bezainbesteko egia da irakurleak maite duela poesia liburuak poesia liburu ematea, poesi liburuak itxura izatea.

Zuzen edo oker, nire irizpideak erdibidean geratu ziren. Roquek aipatutako erantzukizun historiko hori gorabehera, ni ez nintzen unibertsitate irakaslea ez eta kritikari akademikoa, poeta eta itzultzailea baino. Hitz bitan esateko, nik poema bilduma bat egin nahi nuen, ez poeta bilduma. Poema liburu baten gisan irakurtzeko modukoa. Horregatik, poetak hautatzeko

orduan irizpide zehatzagoak erabili nituen: hilik egotea, lehen aipatu bezala, baina baita beste hizkuntzetako antologiak, eta poeten presentzia testu liburuetan (adibide bat jartzearen, José Batlló-ren *Seis poetas catalanes* antologian ageri diren seiak (Carner, Riba, Salvat-Papasseit, Foix, Quart eta Espriu) nire bederatzietan daude. Uste dut poeten selekzioa “kanoniko” samarra dela. Baina poemen aukeraketan nasaiago jokatu nuen: laburraren alde, argitasunaren alde, poema biribilaren alde, euskaraz testu gozagarria sortzeko aukera emango zuten poemen alde. Berba bitan esateko, irakurlearen alde.

Ustez poeta bakoitzaren izpiritua eta izaera desitxuratu gabe, baina, oker edo zuzen, eta salbuespenak salbuespen, poema luze-luzeak eta nahasiak baztertu egin nituen, poema molde jakin batzuk murriztu, poeta katalan horien “guretzako moduko” bertsiio bat egin nuen, ni gai egiteko nintzena bestalde.

Bestelako kritikei dagokienez, ez naiz gauza izan Susako armiarma-sarean aurkitzeko. Oker ez banago bi izan ziren, Miellanjel Elustondorena bata, “Gureen antzekoak” izenburua zeramana; eta bestean, sentitzen dut egilearen izenik ez gogoratzea, ohar bio-bibliografikorik erantsi ez izana leporatzen zidaten.

Gogoan daukat antologiaren kasuan (*Oktaedro*-rekin ez bezala) zuzentzailea izan nuela. Uste dut, baina ez nago seguru, Karlos Zabala izan zela. Poesia izanik, ez zuela eskua gehiegi sartu nahi, eta errakuntza eta oker nabari eta iradokizun batzuekin konformatu zen. Errespetu handiko zuzentzailea iruditu zitzaidan.

“Literatura Unibertsala” bilduma

Bertigo apur bat ematen du pentsatzeak guk egindako gauza batzuk hasi direla, kronologikoki besterik ez bada ere, *historiko* bihurtzen. “Literatura unibertsala bilduma” hitzak entzun, eta Asun Garikanoren eta Stevenson-en *Altxor uhartea* datorkit burura, bildumaren lehen aldiko portada itsusi nahasi betiberdin harekin. Azal harexekin argitaratuko zen nire eta Julio Cortázar-en *Oktaedroa*. Beste ausarkeria bat.

Baina *Altxor uhartearen* azala ez zait bakarrik agertzen; harekin batera, eleberriaren hasiera ere badatorkit: “Nolaz eta...”. Bi hitz horiek, bi hitz horiek hor jarrita, horrela, atea zabalik utzita eskuin aldera, jarraian nahi beste eta nahierara luzatzeko aukera hori, dinosauru SOV bat ez bagina bezala...

Ez dakit orain oso ondo ulertzen den, baina garai hartan literatur itzultzaileok gauza asko ikusten genituen argitu gabe, erabaki barik, arautu beharrean (gaur egun ere izango da horrela sentitzen denik, pentsa orduan: Makulu ia bakar, Plaxido Mujikaren hiztegia genuen, eta hark batuaren aurreko ortografia zeukan). Kezka hari erantzunez EIZIEk mintegi batzuk antolatu zituen literatur itzultzaileok bildu, korapilo haiek aztertu eta, ahal zen neurrian adostasun oinarritzko batzuetara iristeko. Gero ikastaroak ere antolatzen ziren, taldean eginiko gogoeta haiek zabaltzeko. LIM-LIBI zuten izena.

Ez dauzkat ahazteko Donostiako larunbat goiz haiek: Juan Garzia, Xabier Olarra, Jon Alonso, Juan Mari Mendizabal, Mikel Garmendia, Koldo Biguri... eta gogoratu beharko nituzkeen beste hainbat. Orain atzera begira jarri, eta garai “fundazionala” iruditzen zait, luxu bat han egon izana.

Ez da amaitu literatur itzulpenaren garrantzia defendatu beharra. Bada oraindik “itzulpen” hitza entzun, eta muturra okertzen duen euskal irakaslerik, euskal irakurlerik. Izugarri aurre-ratu dugu literatur testu itzuli gozagarriak eskaintzeko gaitasunean, eta halaber literatur testu itzuli horiek gozatzeko gaitasunean. Ez da bide txarra.

Zenbait poeta katalan - Poetak (eta poema bana)

Liburuaz eta bildumaz esan beharrekoak esanda daudelakoan, goazen antologiako poeta batzuk labur-labur aletzera. Ez du zentzu handirik Google-k, Wikipediak eta web orri pare batek hain eskuzabal eskaintzen dutena nik hemen errepikatzea.

Joan Salvat-Papasseit

Familia apalekoa, umezurtza, ikasketarik gabea. Anarkista, hogeita hamar urtez hil zen, tuberkulosiak jota. Poesia soil, errealista, alaia egin zuen. Amodio poema xalo samarrak baina zoragarriak.

“Gonbidatzen zaituztet, poetak, etorkizun izan zaitezten, hau da, hilezkorrak. Oraina gaurko egun gisara kanta dezazuen, bertsolerroak neurtu ez, hatzekin zenbatu ez, ez eta dirutan kobratu; bizi gaitezen beti berrikitan. Biharamuna beti da iragana baino ederragoa. Eta errimatu egin nahi baduzue, errimatu; baina izan zaitezte Poetak: harroak, ausartak, heroikoak eta, batez ere, egitiak”.

AMODIO LANGINTZA

Enric Casanoves-i

Plazerraren berririk baduzu, ez xuhur jokatu musuekin
neurririk ez baitakar berekin maitatzeko pozak.
Utzi musu ematen, eta eman musu zeuk gero,
beti ezpainetan baitirau maitetasunak.

Ez musu eman esklabo edo sinestunaren gisara,
ezpada ibiltariak dohaneko iturriari bezala;
eta utzi musu ematen —sakrifizio gartsua—,
zenbat sutsuago, hainbat fidelago baita musua.

Zer izanen duzu eginik goizegi hilez gero,
haizea aurpegian beste fruiturik ez duzula?

Utzi musu ematen, eta bularrean, eskuetan,
maitale edo maitatu —edalontzia goi-goian.
Musu ematean, edan, beirak senda dezala izua:

musu eman lepoan, ingururik ederrena.
Utzi musu ematen,
eta artean minik bazenu
musu eman berriz, bizitza aletua baita.

(Zenbait poeta katalan, 99. or.)

Pere Quart (Joan Oliver)

Kazetari, editore eta itzultzailea. Gerra ostean Txilen exiliatua. Poeta dibertigarria, ez da ohiko gauza.

“Azken batean, poema hauek adiskideei idatzitako gutunen antzekoak dira, edo haiekin etxean izandako elkarrizketa baten modukoak —gutxi edo asko izan adiskideak—. Loturak apur ditzagun, beraz, desbuxatu gaitzen eta tonutik kanpora kanta dezagun, lagunok, guk behintzat, ozenki ez bada ere, bai behintzat harroki”.

GURUTZADA

Ordua hurbiltzen denean,
amonak eta haurrak
logelen hondoan kuzkurtzen dira;
eta garbiketaren gelatxoan
dontzeila hasperentsuak,
guztiarekin ere, gogotik apaintzen dira ispilu aurrean.

Baina gizonezkoak —adi honekin—
haltzen gisan altxatzen dira
mahai suntsituaren ondoan;
atalondora irtenda,
ortzea aztertzen dute, perla faltsuaren kolorekoa.
Bekozkodun, krisialdian diren heroien gisan,
gaingiroki besarkatzen dute
emazte ihartxoak,
aspalditik gaixo-erraz.
(Txakurra intziri ahulean aritzen da
etxeko irteeraren inguruan.)

Eta «agur» oihukatzen diete guztiei
ahots sendoz,
eta besoa altxatzen dute erdizka,
isilpean sinesgogor, beharbada,
baina agerikoan errukigabeak.

Binaka,
ehundaka eta milaka
oldartzen dira
arratsaldeko kale jendegabeetara.

Gisa martzialez, edo matxinatu itxuraz, hor nonbait,
aurrera jotzen dute, korrika doaz
—helmuga bakarreko pelotoiak,
zenturiak, legioak—
oldartsu, lasterketa bakarrean
elkarrekin lehian,
erasoaldi handien
edo ihesaldi handien
patu erraldoiak harturik bezala.

Arrisku handiz —o, bai,
giroan euri zantzuak
suma daitezke eta—,
katoliko zintzoak,
gurutzada-gudari ahobatekoak,
gizon
bakar
baten
gisan,
estadio berrira doaz, estadiora.

Joan Vinyoli

Antologiaren garaian niregandik gertuen sentitzen nuen poeta. Ukitu ezkor batekin baina oso dotorea. Poema biribil askoak, irudi indartsuen inguruan eraikiak. “Laburpen zoragarriak” tankerako asko.

“Fidel izan / gauza txikiei; ez zaizu emana / jausleku isilaren gainean / hegan egiteko dohaina. // Kantu apalaren zubi eskegi / hauskorrean barna saia / bazter honetatik besterako / bide ziur-ez, lainotsua.” (“Iturrietarantz” poemaren lehen ahapaldia, in *Zenbait poeta katalan*)

UDA

Horiaren eta gorri min
geldien goi-haserrea;
urdina, bien bitartean, zaunkaz
hurbildu eta badoa, zakur
egarritua, ahotik bitsa dariola,
erakutsi gabe oraindik
marrazoaren begirada dorpea.

Babes gaitezen
eguzkiaren suminaldietatik;
nik badakit beti guztia
babesturik gordetzen duen haitzuloaren berri.

Ez diezaiegun geure burua udako gehiegikeriei jaregin,
bizitza-milikari zahar eginik. Entzun itsasoaren
marruma haitz artean. Senti ezazu gaua,
munduaren sosegua. Iragarpen oro finitzen da
argia sortzen denean. Orduan dugu garaia
bainatzera joateko.

Bizitza,
ezer gutxi honetaz gain:
ehun besakada kabletik gertu
buiaraino eta orduan hildakoarena egin,
hondartzara sekula gehiago itzuli ezinik.

Vicent Andrés Estellés

Valentziarra, kazetari eta poeta. Heriotza eta sexua ditu gai nagusiak, sexua valentziar erara gainera, herrikoia, egunerokoa, zuzena, soila, baita baldartxoa ere.

AHITURIK SUMATZEN HAUT, ERORIA, BOTATA

Ahiturik sumatzen haut, eroria, botata,
kondoi,
duintasunik gabe heure porrotean,
edonola jaurtia,
txorimalo ezindu
baten gisan, zut jartzeko ez-gauza, nekatuki gizatiar,
eta hala ere niri falta zaidan hazia daukak

eta hatsa duk oraindik,
likatsu eta zalapartari,
neronek bezala, baina beste gisa batez,
tupusteko borroka basatiaren ostean.

Poesiaren ontzieldaketa

Kazetariak holakoxe gauzak izaten baitituzte batzuetan, batek galdetu zidan zer ote zen niretzat “poema on” bat. Hauxe erantzun nuen: «Poema onak trepeta linguistiko, emoziozko eta adimenezkoa izan nahi du aldi berean, erritmo, musikaltasun, komunikazio, umore eta probokazioa ahaztu gabe. Poema on batean, mezua guztia da».

Definizio horretan gauza asko aipatzen da, baina ez dut uste erabatekoa denik. Horregatik ekarriko dut hona, lehen aldiz, nire aspaldiko ezagun bat, João Mendes literatura irakasle xaharra: “A poesia e a expressão verbal / musical e imaginosa / que serve de encarnação sensível / a uma ideia fundamente sentida”.

Poesia itzultzeko, ez dut uste itzultzaileak derrigor poeta —poesi sortzailea— izan behar duenik; bai, ordea, poesi zale eta irakurle ia amorratua. Badakit badela halako beldur txiki bat poesiaren aurrean, poesiak gure artean duen zail, ilun, aldrebestu eta ulergaitz fama horregatik. Kezka dugu hitz jokoak, ironiak, kultur eta literatur erreferentziak harrapatuko ote ditugun. Neurri batean edo bestean, guztioi gertatzen zaigu. Poesia sarri irakurtzeak kentzen du, eta ez beste ezerk, beldur hori.

Poesia itzultzea ez da ogibide; ez da noski aberasbide, bai ordea aberasgarri. Poesia itzultzen ikasitakoak hizlaurako ere ia berdin balio du, trinkoan landutakoa zabalera ekarriz.

Ariketa gisa, poesia itzultzeak badu alde on ukaezin bat: laburtasuna. Poema testu laburra izan ohi da, baina testu osoa, beregaina. Munduko poemarik txikiena izanda ere, bukatutakoan lan (ondo) eginaren satisfazioa ematen dizu berehala; ederra alde lauhun orrialdeko eleberri bat itzultzearekin!

Poesia itzultzea egin beharreko lana da. Inguruko eta urrutiko hizkuntzetako hizkera poetikoekin harremanetan jartzen ez den hizkera poetikoa herdoildu egiten da, kiribildu eta norabidea galdu. Eta gure poesia beste hizkuntzetara itzultzeaz ari bagara, bizi garen mundu honetan ez dauka zentzu handirik bakarrik *etxerako* diren mezu unibertsalak sortzea, ala?

Poesia itzultzea egin beharreko lana da. Poetek auto-itzulpenerako joera dute, baina gero eta gehiago dira natural onartzen dutenak beren elebitasuna ez dela orekatua, eta bi hizkuntza gehiegi direla maila gorenean erabiltzeko moduan lantzeko.

Poesia itzultzeko lana izan daiteke apeta.

Edo izan daiteke enkargua:

- a) kritiko, irakasle, ikerlari: antologiak, bilduma bereziak
- b) editore, egile: liburu osoak, disko-kaierak
- c) erakunde edo elkarteak: web-orriak, aldizkariak

- d) sarietarako (nazionala)
- e) poesi jaialdiak.

Enkargurik gabe, apetazkoetan, ariketak egiten ari gara, ez itzultzen (gero beti dago itzulitakoa argitaletxe bati bidaltzea, baina ez da inondik inora bide gomendagarria: eskubideak hartuta egotea, beste norbait lan bera egiten aritzea...).

Poesia itzultzeko moldeak ugari dira. Ardatz gisa literalitasuna hartzen badugu, mutur batean helburu didaktikoa daukan itzulpen akademiko *ortopedikoa* dugu: testuaren ulermena du helburu, ia hitzez hitz eta oharrez josia. Jatorrizko testuaren makulu da. Balio erantsiko testuekin erabili ohi da, erlijiozkoak edo hizkuntza hiletakoak.

Beste muturrean, gurea dugu, helburu literarioa duena: helburu-testuak poema izan behar du helburu-hizkuntzan. Ez da noski testu beregaina (jatorrizkoaren mendekoa da, jakina), baina hala balitz bezala funtzionatu behar du. Gure kontsigna hauxe da: poema poema truk.

Horretarako, konpromisoak, tratuak egin beharko ditugu testuarekin (baina irakurlearekiko *tratuak* behin ere burutik kendu gabe).

Hamaika aldiz entzungo zenituzten esaldiok. Orokorkeria pila baten antza izan dezakete, baina gutxi-asko iparrorratza non ezarri behar dugun azaltzen digute.

- *Itzultzea eta (berr)idaztea eragiketa homologoak dira.* (Octavio Paz)
Badago, nolabait, sortze kuota bat; poesi testuetan, areago. Sortzailea arrazoi eta sentimenezko magma hitzik gabeko batetik abiatzen omen da bere testua sortzeko. Itzultzaileak, kontrako bidea egin, testu hori bere kodetik erauzi, eta magma egoerara bihurtzen du, eta gero magma hori beste kode batez janzten du, sortzailearen norabide bereko bidaia eginez.
- *Giltza da efektu berak bilatzea, bitarteko ezberdinak erabilita.* (Paul Valéry)
- *Ahal bezain hurbil, behar bezain urrun.* (Miguel Sáenz)
- *Hizkuntza batetik bestera itzultzea ariketa intelektual delikatuenetako bat da: horrekin alderatuta, bestelako igarkizunek, bridge-tik hasita eta puzzleak ere barne, hutsalak eta arruntak dirudite. Grekerazko zati bat hartu eta ingelesez jartzea, tantarik ere isuri gabe, zeinen trebetasun atsegina!* (Cyril Connelly, idazle eta kritikari ingelesa).

Tantarik ere isuri gabe... Horrek eramaten gaitu gaurko saioaren izenburura: poesiaren ontzaldaketaren metafora ederra da, nahiz ez den bete-betea ere. Alabaina, ez-betea izate horretan gogoetatxo ederra eskaintzen du. Esan nahi baita: ontziak hizkuntzak badira, eta isurkaria literatur testua, ontzaldaketa izango litzateke isurkaria, isurkari bera, ontzi batetik bestera isurtzea; zeinen erraza, zeinen soila. Baina kontua konplikatua da. Isurkariak ontziaren forma hartzen du, bistan da, baina areago esango nuke: isurkaria eta ontzia bat eginik datoz, bata bestearekin uztarturik, sareturik, txirikordaturik. Isurkaria bakarrik ez, ontzia ere ontzaldatu behar bagenu bezala.

Eta, amaitzeko, hor ditugu baita ere itzulpen perfektuaren legeak, lehen aipatu dugun João Mendes maitagarriak adieraziak bere 1986ko *Teoría Literaria*-n:

Gure egin beharraren definizioa ere ematen digu: “*A acção de passar o poder expresivo de qualquer trecho de uma língua para outra*” (hizkuntza bateko edozein zatiren adierazte ahalmena beste hizkuntza batera igarotzea). Definizio soil horretatik segitzen dira itzulpen perfektuaren legeak:

1. “*A tradução perfeita é impossível*”
“Itzulpen perfektua ezinezko gauza da”
2. “*Tentar a tradução perfeita é utilíssimo*”
Itzulpen perfektuaren bila saiatzea oso da lagungarri itzulpen ona egiteko”

1. Poemaren aurrean

Gehienez poema solteak itzuli beharko ditugu, baina batzuetan sortak edo liburu osoak izan daitezke. Hor poemak sailetan bilduta agertu ohi dira, beren artean harremanak ezarriz, errepikapen, oihartzun, keinuen bitartez. Horiei oso adi egon beharra dago.

Poema solteak izanik ere, paratestuak ditugu, poemaren gorputza bera ez den beste guztia: izenburuak, aipuak, eskaintzak.

Itxura tipografikoak azaleko gauza irudi lezake, baina kaligrametan, akrostikoetan edo ikusizko poemetan funtsezkoa gerta daiteke.

Edozein poematan kontuan hartu beharrekoak dira, ordea, simetriak, estrofa banatzeko moduak, lerro hasierako letra larriak eta abar.

Une honetan bereziki erreparatuko diogu puntuazioari. Oro har, arauzkoa den (bertsole-erro hasierako maiuskulak, zeinuen falta guztizkoa edo partziala...). Testu itzulian puntuazioa ispilatu bai, noski, baina laxoago jokatzea gomendatzen da. Are gehiago, gure testuaren sendotasuna ziurtatzeko tresna gisa jotzea. Zenbaitetan, jatorrizkoan ez ziren tartekiak irekitzea, edo puntu eta koma bat eranstea —beti ere tentuz eta koherentziaz jokatuz, eta beharrak eraginda— nik ez daukat bekatutzat, bertutetzat baizik.

Beste kontutxo praktiko bat. Gure garaian behintzat, halako errezelo bat sumatzen zen jatorrizkotik ez, edo bakarrik jatorrizkotik ez ziren itzulpenekiko. Ia ezezaguna izanik ere, huts-hutsean jatorrizkoarekin borrokatzea hobesten zen, eta beste hizkuntzetan jada eginiko ahaleginak baztertzeko, gurea *kutsatuko* zutelakoan. Nire ustez ez du zentzurik. Itzultzaileak arduraz izan behar du bere itzulgaiak beste hizkuntzetara eginiko bertsioak ezagutzeko eta erabiltzeko (ondo edo nolabait ezagutzen dituen hizkuntzez ari naiz, noski).

2. Poeman bertan

Hasieratik erreparatuko diogu neurriari eta errimari. Neurri finkorik sumatzen ez badugu, ageriko errimarik ez badago (baina kontuz, (lerro) barnekoak ere izan baitaitezke), askeago joka

dezakegu alde horretatik, baina ez guztiz libre: itxura tipografikoa ahalik fidelen ispilatu behar da, eta testuaren “masa kritikoan” ezin da alde handiegirik izan.

Poemak neurri finkoa eta errima baditu, edo bietako bat, erabakiak hartu beharrean egongo gara (izan ere, horixe da gure lana: erabaki nîmiño ugari hartzea). Erabaki beharko dugu zein itzulpen mota egin nahi dugun, zein lekutan jarriko garen literaltasunaren ardatzean.

Mutur batean genuke poema neurri eta errima eta guzti itzultzeko hautua egiten dutenak: testu klasikoak izaten dira, ahalegin eroaren antza izaten dute, nekez dira asebetegarri, oso zaila da auto-inposatutako baldintza horiekin testu gozagarriak sortzea. Arau estuegiak ezarriarik, hizkuntza gehiegi bortxatu behar da, ezohiko lexikoa baliatu, muturreko irtenbideetara jo. Ontzia estuegia izanik, isurkariaren zati bat kanpora doa. Testuaren irakurgarritasuna, gozagarritasuna, gal dezakegu, eta azkenean irakurlea ere bai.

Baina gehienetan tratuak egiten dira testuekin: neurriak errespetatu bai baina errimarik ez, edo alderantziz. Prozedura ohikoa da, adibidez, jatorrizko errima kontsonanteak itzulpenean errima asonanteetan ematea.

Eta batez ere aldaketak egiten dira neurriari dagokionez: erdarazko endekasilaboak euskarazko hamalaukoetan ematea adibidez.

Beste muturrean genituzke bertsioak, bariazioak, omenaldiak eta abarrak, non eta itzultzaileak sortzailearen lekua hartzen baitu kasik.

Bada bien bitarteko kasu bat, gogora ekartzea merezi duena: kantu hitzen itzulpena. Baina ez CDen kaieretan agertu ohi direnak, ez. Kantu bera beste hizkuntza batean abesteko moduko moldaketez ari naiz. Brassens-en abestiekin egindako bertsio ugariak datozkit gogora (Xabier Lete, Anje Duhalde, Paco Ibáñez, Claudina eta Alberto Gambino...), edo Juan Garziak Bob Dylan-en kantuekin egindakoak (*Senex-en daude*). Kasu honetan emana zaigu literaltasunaren ardatzean kokatu behar garen lekua. Testuak kantagarri izan behar du, musika berean aitzakiarik gabe “sartu”, prosodiari estuki lotutako lana da (nota bat = silaba bat), eta horrek ez dauka bueltarik. Baina gainerako guztiak bai: hizkuntzen izaeraren arabera, luzatu edo laburtu egin beharko da “edukia”. Ontzia zurrunduta daukagu, isurkariak hartu behar du haren forma. Emaitza batzuk gogoangarriak dira, eta ahalegina asko eskertzen da, baina jatorrizkoaren minez geratzen gara nahi baino gehiagotan.

Baina gu ez gara ari kanturako, patxadaz irakurtzeko baizik.

Salbuespenak albuespen, ez dugu neurri-errimen kontuengatik komunikazio-ekintza kokolan jarriko. Bereziki erreparatuko diogu, hori bai, erritmoari, azentuei, litezkeen hots jolasei...

Bada poemari aurre egiteko truku lagungarri moduko bat: zentzumenen araberrako irakurketa zatikakoak egitea, alegia: bakarrik ikusmenarekin: zer dagokie poema honetan begiei?, eta poemaren sentimen horrexetara zuzentzen diren zeinuak bilatu: koloreak, argi-itzalak, irudiak... Beste horrenbeste entzumenarekin, usaimenarekin, ukimenarekin... Hartara, segurtasun handiagoa izango dugu gure irakurketaren osoaz, eta bide batez sinestesiei erreparatuko diegu (soinu iluna, laztan arrosa, urdin goxoak...)

Arreta biziz aztertuko ditugu errepikapenak, sinonimoak, zangalatrakak (enkabalgamenduak), erregistro bereziko hitz eta esamoldeak, arauz kanpoko erabilerak...

Poesia sarri irakurtzeak, beste ezerk ez digu emango ziurtasun gehixeago arlo semantikoan izu ez ibiltzeko. Hitz jokoak, umorea, ironia, erabiliz bereganatzen diren kontuak dira.

Erreparatzea, eta ordezeko zerbait bilatzea, horra sekretua.

Poema poema truk: itzul lanaren emaitza, beste poema bat.

3. Bukatzeko, bi aipu

José Corredor-Matheos antologia egileak, *Poesía catalana contemporánea* liburuaren hitzaureraren: “La traducción de poesía, más que cualquier otra, plantea problemas insolubles, lo cual constituye uno de sus principales atractivos y es motivo de desdicha, que solo puede verse mitigada en parte. La traducción de un poema, o es fiel a la letra, alejándose de lo poético, o se parte de la letra para intentar salvar el espíritu. La traición es, no solo una sospecha, sino una necesidad: forma parte del ‘oficio’, que en el caso del traductor de poesía es más bien pura ‘devoción’ (...). La traducción de poesía no puede hacerse si no es con la voluntad de ‘hacer’ poesía, arriesgándose con ello a toda clase de errores con la esperanza de que el conjunto, y los logros parciales, compensen y hagan olvidar esas caídas inevitables.”

João Mendes irakasle xaharrak, berriz, hala dio bere *Teoria literaria*-ren ondorioen atalean: “De tudo o que precede se conclui que o trabalho de bem traduzir supõe verdadeiras qualidades literárias, embora não exija grande originalidade e profundidade de concepção. Seria tradutor ideal aquele que possuísse certos recursos técnicos de boa composição, imaginação colorida, riqueza vocabular e rítmica, profundo conhecimento da língua, embora esses dotes pudessem andar desacompanhados daquela densidade humana de vida interior e de criação original, que são os mais preciosos dos recursos, mas que, no caso, seriam fornecidos pelo original (...). Mas, quando o tradutor tem estilo muito original, sobretudo de acentuação pitoresca, então há o perigo muito real de impor ao texto a traduzir su própria maneira de ser, caindo no defeito da infidelidade expressiva.”

Bibliografia apur bat

BATLLÓ, José (ed. itz.), *Seis poetas catalanes*. Taurus, 1969.

CORREDOR-MATHEOS, José (ed. itz.), *Poesía catalana contemporánea*. Espasa Calpe, 1983.

GOYTISOLO, José Agustín (ed. itz.), *Veintiún poetas catalanes para el siglo XXI*. Lumen, 1996.

IZAGIRRE, Koldo (ed. itz.), *Salvat-Papaseit, Joan. Antologiak*. Pamiela, 1995.

MARKULETA, Gerardo (ed. itz.), *Zenbait poeta katalan. Antologia*. Ibaizabal, 1997.

MENDES, João, *Teoria Literária*. Verbo, Lisboa, 1986.

Algunas notas sueltas sobre cómo transvasar poesía

Con ocasión de su reedición en la “Biblioteca de Oro”, el articulista rememora su trabajo como antólogo y traductor en la antología *Zenbait poeta katalan* [Varios poetas catalanes] (1997). Tras recordar aquella época de menor experiencia y medios más limitados, reflexiona sobre los diversos modos de afrontar una antología y trae a la memoria la recepción que en su día tuvo su selección. Termina con unas notas acerca de la traducción poética.

Quelques notes éparses sur la façon de transvaser de la poésie

À l’occasion de la réédition dans la collection « Bibliothèque de Oro » du livre intitulé *Zenbait poeta katalan* (1997) [Plusieurs poètes catalans], l’auteur remémore dans cet article son travail d’anthologie et de traduction réalisé à cette époque. Il commence par rappeler cette période où son expérience était moindre et où les moyens dont il disposait étaient bien plus limités que maintenant. Il analyse les différentes méthodes pour aborder l’élaboration d’une anthologie et nous rappelle l’accueil reçu par l’ouvrage au moment de sa publication. Il finit avec quelques réflexions sur la traduction de textes poétiques.

Notes on the Transfer of Poetry

On the occasion of the reissue of *Zenbait poeta katalan* [Various Catalan Poets] (1997) as part of the “Golden Library,” the author of this article recalls his work as anthologist and translator of the anthology. After remembering that time in which he had less experience and more limited resources, he reflects on various ways of undertaking an anthology and recollects the reception that his selection had when it was first published. He concludes with notes on poetic translation.